

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Uraren gainean



Igor Estankona

Donostia Kulturak eta Balea Zuria argitale-txeak gazteentzat pentsatutako poesia lehiaketak badu lehen saritua. Iruindarra, 1991n jaioa. Eta dio: "Orrialde zuria dut/ isilmandataririk fidelena,/ mara-mara jausten dira hitz malutak/ isilatsun gainera".

Eli Tolaretxipi, Itxaro Borda, Aritz Gorrotxategi eta Pello Otxotekok argi ikusi bide zuten zirriborroaren indar ezkutua. Izan ere, badu berdetik eta badu heldutik *Azalberritze bat* (Balea zuria, 2018) honek, baina batez ere bilaketa baten istorioa dela begitandu zait. Bere abantailla, eta bere azkena, hortixe datoz.

Urteetako metodoaren eta obsesioaren fruitu, bistan da izerditutako liburua izan dela:

"Mundutar oro egunsentiaz ahaztuko balitz bezala,/ soilik katuak ibiltzen gara/ alderrai,/ etorbideetako jaun eta jabe,/ Cortazarren arrasto isilak bagina bezala,/ telefono kableen gainean/ pausauko diren enarak itzuli zain./Itzuliko dira". Idazketa eta irakurgaiak eta egunerokoa nahastu egiten zaizkio poetari maiz. Liburuan hainbat aldiz harrapatzen du bere burua poesiaz hausnarrean, liburu bihurturik bere azala beste batzuetan. Inoiz, lirika dendetako eskaparateetan ere ikusi bide du.

Urteetako irakurgaien dekantazioa bezain irregularra, liburuko poema zenbait luzatu egingo nituzke nik, aterako nieke ideia batzuei punta arean gehiago. Eta, bestalde, zertara-

Azalberritze bat

ESTI MARTINEZ DIAZ DE CERIO

Balea zuria, 2018

Esti Martinez Diaz de Cerio idazlea (Iruñea, 1991).



ko: idazleak hauxe gura izan du transmititu, alegia, halako intimismo bat ertzak borobilduak dauzkana, estridentziarik gabekoa. Berba bat bestea baino altuago ez esate horrek bihurtzen du atsegin eta funtsean argal. Konfesorako tartea da hemen orri zuria, baina konfesio hori neurritsua da. Esan daiteke asmo txikiekin egina dela halako asmo goragoko bat: "Hutsartetik osotasunera doan bidea/ makurra eta luzea izan daiteke/ salto batez egiten ez duzunean./ Niri eternoa dirudit".

Eta agian esan dugun horregatik guztiagatik, eta bere itxura bateko sofistikazioagatik, uraren gainean idatzia dirudi. Estiloa dauka, erritmoa dauka, hitza dauka, eduki behar duen lekuan; eta errematea ere bai. Baina irakurriaz batera lurruntzen da. Esti Martinez Diaz de Cerio hogeita zazpi urterekin idatzi ditu hamazazpi urterekin idatzi ohi diren ahapaldiak. ■